



# IKASLE OHIA: ZURE ESKURA

2022-2023 IKASTURTEA



Ikasle ohi agurgarria,

Baliteke ikastolako ikasle ohi berria izatea, edo Lauaxetan ikasketak amaitu zenituenetik urte batzuk edo asko igaro izana.

Beharbada zurekin elkartu gara ikasle ohientzat antolatu berri den festan. Topaketa hunkigarria izan zen. 500 lagun baino gehiago bildu ginen! Baina agian ez zinan egon.

Dena dela, orain arte egindakoaz haratago, etorkizunari begira, gure harremana edota zurea ikaskideekin, bidean mantentzea gustatuko litzaiguke. Zugan pentsatu eta zure interesekoa izan daitekeen beste zerbait eskaintzeko konpromisoa hartu nahi dugu.

Ez da erraza, badakigu; izan ere, ikastola 1977an sortu zela kontuan hartuta, adin eta bizi-une askotako ikasle ohiak ditugu, baina ahalegin hori egin nahi dugu.

Horregatik, zure interesekoak izan daitezkeen eta dokumentu honetan jasotzen ditugun zerbitzu batzuetan pentsatu dugu.

Baina hauetatik harago, guri idaztera edo gugana hurbiltzera gonbidatu nahi zaitugu, bururatzen zaizun edozein ideia edo ekimen interesgarri iradokitzeko.

Ahal den neurrian, kontaktuan jarraitzeko aukera ematen badigu, pozik ekingo diogu.

Besterik gabe, oraingo 2022-2023 ikasturte berrirako eskaini nahi dizugunarekin utziko zaitugu.

*Besarkada bat!*

# Zeintzuk dira kasturte berrirako zuretzako ditugun zerbitzuak?



## KIROL GUNEEN ERRESERBA

Nahi izanez gero, **ikastolako kirol gune batzuk, eskola orduetatik kanpo erabiltzeko aukera izango duzu:** atletismo pista, futbola, frontoia, ... zure eskura izango dituzu eta erreserba gure webgunetik egingo da.

[+Info](#)



## HITZALDI INTERESGARRIAK eta EXPERTIA PROGRAMA

**Aldiro guraso, profesional eta pertsona ezberdinen hitzaldiak antolatzen ditugu,** bizipen eta ezagutza aberasgarriak dakartzatenak. Edukiaren arabera, zuretzako interesgarrienak litzatekeenetara gonbidatu nahi zaitugu.

**Bestalde, zuk zeuk ere bizipen eta ezagutza aproposak izan ditzakezu, gure ikasleekin partekatzeko aberasgarriak izan daitezkeanak.** Alde honetatik, gure Expertia programaren hizlari bezala ere ikastolara etorri zaitezke. Ikasleentzako, bizipen esaguratsua izan daiteke zurea.

[+Info](#)



## ZAINZA EDO ESKOLA LAGUNTZA

**Familientzako seme-alaben zaintza eta eskola laguntza zerbitzua eskaini nahi ditugu** eta horretarako zuetariko askok esperientzia eta gaitasun aproposak dituzuela badakigu. Zuentzat lan esperientzia izan daiteke eta familientzat laguntza. Bizitza etapa ezberdinetan, Lauaxeta Ikastolaren parte zaretenen arteko harreman polita.

[+Info](#)



## IKASLE OHIEN LAN POLTSA

**Aldiro ikastolan bertan lan aukerak sortu daitezke edota ikastolan kanpoko lan eskaintza baten berri izan daitekegu.** Eta agian hortarako perfila izanez gero, zuretzako interesgarri izan daitezkeen aukerak sortu daitezke.

[+Info](#)

## Eta nola izan dezakezu eskaintzen denaren berri?


Aurreko zerbitzuren batetan interesa izanez gero, gure webgunean Ikasle Ohi (Alumni) bezela erregistratu behar duzu:

Ikasle ohia (Alumni)  
izan nahi dut eta niretzako  
zerbitzuak ikusi

Hortaz gain, zurekin kontaktua mantendu nahi genuke eta baita zuk ere ikaskideekin harremana mantendu ahal izatea. Horretarako hainbat bide dituzu:

- [Ikasle ohien Linkedina](#)
- [Blogean ikasle ohientzako dugun atala](#)

Aurrekoetaz gain, ikastolako sareak orokorrean ere kontsultatu ditzakezu:





LAUAXETA  
IKASTOLA

[lauaxeta.eus](http://lauaxeta.eus)